

Mari Carmen Sarasua Muguerza
Eibar, Gipuzkoa
(1925)

Aurkibidea

Biografia



Ama Mendarokoa zuen; aita eibartarra. Umetan, Pagei kalean bizi izandakoa. Gerra Zibila hasi zenean 11 urte besterik ez zituen baina hala ere oso ondo gogoratzen du Eibar nolakoa zen. Gerra garaian lehenik Frantziara joan ziren ihesi, eta handik Valentziara. Eibarrera itzuli zirenean, herria suntsituta aurkitu zuten, eta beraien etxea lur jota. Ondorengo urteak ere gogorrak izan ziren beraientzat.

Zintak

AB-331

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2002-06-18
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Gerrako ibilerak

- **Erref:** AB-331/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:20

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

1925ean jaioetakoa, gerra hasi zenean 10 urte zituen. Umea izan arren orduko kontuak ongi gogoratzen ditu: lehenengo Lekeitiora eraman zituzten komentu batera; handik Magunazelaia herrira (Oiz-en magalan dago). Anaia soldadu joan zen gudariekin. Gerora Valentziara joan ziren.

2. Eibartik ihesi gerra garaian

- **Erref:** AB-331/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Gerra garaian egindako ibilbidea: Magunazelaiatik ("Mauma") Orominora. Durango eta Gernikako bonbardaketak. Eubatik Algortara joan ziren. Solares herrira heldu ziren azkenean. Aita bitartean, Deuston lanean. Handik Valentziara joan zen lanera eta beraiek ere harunzko bidea hartu zuten.

3. Frantziatik Valentziara; aita Valentzian lanean

- **Erref:** AB-331/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:55

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Frantziara joan ziren lehenengo; hango egoera. Gerora lekuz aldatu eta ia Canal de la Mancha-rarte eraman zituzten. Amaren esaera. Francok Frantzian zeuden errefuxiatuak eskatu zituen eta nazionalen edo gorrien aldera pasatzera behartu zituen. Beraiek Valentziarako bidea hartu zuten orduan. Hango egonaldia nolakoa izan zen. Aitak lan egiten zuen baina ez zuen soldatarik irabazten. Trukean egiten zuten.

4. Gerrako ibilerak; Valentzian egonaldi luzea

- **Erref:** AB-331/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:08:55

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Gerra hasi zenean familiaren lantegiko makinak Eibartik Deustora eraman zituzten lehenengo, ondoren Gijonera eta handik Valentziara. Aitak, makinen atzetik egin zuen ibilbide osoa. Ama-alabak Frantziatik Valentziarako bidea nondik-nora egin zuten. Valentzian Bunyol (Buñol) herrian egon ziren; oso oroitzapen onak ditu eta bertan egindako lagunekin hartu-eman hestua du oraindik; laguntasun handia jaso zuten beraiegandik. Euskaldunak nola ikusiak garen.

5. Eibartar asko Valentzian errefuxiatuta

- **Erref:** AB-331/006
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:11:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bunyol-en eguneroko bizimodua nolakoa zen. Eskolara joaten ziren; e.a. Igandetan jantoki bat prestatzen zuten herrian, lantegietako langile eta familientzat. Eibartar asko egon ziren Bunyol-en. Toribio etxebarría; Cándido Arrizabalaga; Alberto Mendiguren; Galarraga; e.a.

6. Bunyol-eko jendearen harrera

- **Erref:** AB-331/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Eibartar asko egon ziren Bunyol-en eta baita inguruko herrietan ere. Bertako jendearen harrera, zoragarria. Ez zuten bonbardaketarik ezagutu bertan, baina bai Frantziatik Tarragonarako bidean.

7. Eibarrera itzulera: beldurra

- **Erref:** AB-331/009
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:19:20

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Gerra zibila hasi eta berehala irten ziren Eibartik. Pagei kalean bizi ziren, eta dirudienek obus batek etxe osoa txikitu zuen; baina itzuli zirenerako, berriz

jasota zegoen. Blas Etxebarriaren laguntza. Itzuli zireneko kontuak: beldurra; senideen laguntza; e.a. Herrira bueltatzen zen jende gehiena kartzelara sartzen zuten. Jardinetako eskoletan kartzela ipini zuten. Aita nola kartzelaratu zuten. gerra osteko egoera: gosea; e.a.

8. Eibarrera itzulera: lantegiaren berrantolaketa

- **Erref:** AB-331/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:22:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Eibarrera itzulera. Beldurra, gosea, e.a. Aitaren gorabeherak: makinak berreskuratu; lantegia martxan ipini; e.a. Lantegian ehizarako gauzak egiten zituzten; poliki-poliki beherakada etorri zen. Gerra aurretik ere ehizarako artikuloak egiten zituzten.

9. Mendaroko aitona, trenbideko

- **Erref:** AB-331/011
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:26:05

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Ama, Mendarokoa. Aitona, trenbideko kapataza. Eibarrera bizi izatera nola etorri ziren. Non bizi izan ziren. Gerra garaian Santanderrera joan ziren ihesi, baina berriz ere Eibarrera itzuli ziren. Ordurako, etxea beste batek hartua zuen. Gaitzizena. Alfa ingurua nolakoa zen; erreka.

10. Amaña ingurua nolakoa zen

- **Erref:** AB-331/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:27:55

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Amaña ingurua nola gogoratzen duen. Umetan errekan jolasean. Argazki zaharrak ikusten dituen bitartean, hainbat kontu aipatzen ditu: Asolaigartza; trenbideko langilearen zereginak; trenbideko etxea nolakoa zen; e.a.

11. Amaña inguruan zeuden baserriak

- **Erref:** AB-331/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:31:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Amaña inguruan zeuden baserriak: Torrekua; Barrenengua; e.a. Errekan jolasean. Amañako igerilekua.

12. Pagei kalea nolakoa zen

- **Erref:** AB-331/016
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:31:15. **Bukatu:** 00:32:00

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Pagei ingurua nolakoa zen. Gerra garaiko kontuak. "El Casco".

13. Estazio kalea

- **Erref:** AB-331/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Estazio kalea nolakoa zen. Kalbetoi kalea. Eibarko pasialekuak bi kale horiek ziren.

14. Eskolako kontuak: irakasleak, e.a.

- **Erref:** AB-331/018
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:36:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Eskolan Jardinetan ibilitakoa. Irakasleak zeintzuk izan ziren. Petra Chueca, irakasle gogorra. Eskola amaitu eta ofizinan lanean hasteko hainbat gauza ikasi behar izan zituen akademia batean: mekanografia; idazteko makinan nola idatzi; e.a.

15. Eibarrera itzulera; jende asko kartzelara

- **Erref:** AB-331/019
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:39:55

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra ostean, Eibarrera itzulera. Jende asko kartzelara sartu zuten orduan, baita gerora bere senarra izango zena ere. Armeria Eskola amaituta zuen eta Prietok ongi prestatutako mutilak eskatu zizkion Julián Etxebarriari

abiaziorako. Gerra ostean, Ondarretako kartzelara eramán zuten eta handik Batallón de Trabajadoresera; e.a.

16. Zezenetarako zaletasuna

- **Erref:** AB-331/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:20

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Senarra, zezen-zalea. Urtero, Zumarragara joaten ziren, Sta Luzia egunean. Peña Taurinako kidea.

17. San Juanak Eibarren; zezenketak

- **Erref:** AB-331/021
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:44:00

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Eibarren zezenetarako zaletasun handia egon izan da beti. San Juanak, jai garrantzitsuak izaten ziren garai batean. Jendea kanpotik etortzen zen bertara jaietara. Torero garrantzitsuak.

18. San Juanak Eibarren; "Manolak"

- **Erref:** AB-331/022
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:45:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Zezenetarako zaletasun handia Eibarren. "Manolak", peineta eta guzti. San Juanak, jai handiak. Dultzaineroak, e.a.

19. Debara hondartzara

- **Erref:** AB-331/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:48:25

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Debara hondartzara; "baiñerua" egoten zen. Soka bat egoten zen bainatzeko; "baiñeruak" zer egiten zuen. Bainujantziak alkilatzeo aukera egoten zen. Lehenengo bainujantziak nolakoak ziren.

20. Gaztetako ibilerak

- **Erref:** AB-331/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:48:25. **Bukatu:** 00:50:35

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Saturraranera kamioian joaten ziren. Arrate, Kalamua. Abesteko zaletasun handia gaztetan; edonon hasten ziren kantuan.

21. Antzinako Eibar nolakoa zen

- **Erref:** AB-331/026
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:52:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Abesteko zaletasun handia Eibarren. Lehenagoko Eibar nolakoa zen. Elkartasun handia jendearen artean.

22. Jardín de Convalecientes

- **Erref:** AB-331/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:54:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Jardín de Convalecientes: non zegoen; nor joaten zen bertara, nolakoa zen, e.a.

23. Esteban Sarasua, eibartar ezaguna

- **Erref:** AB-331/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:56:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Jardín de Convalecientes. Ospitaleko Batzordean Esteban Sarasua zegoen (Carmenen aitona). Argazki zahar bat dokumentatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com